INFORMAZIO-OHARRA, 1/2026 FORU LEGE-DEKRETUARI BURUZ. Arau horren bidez neurri fiskalak hartzen dira Nafarroako Foru Komunitatean, Ekialde Ertaineko krisiaren ondorio ekonomikoei aurre egiteko.

Nafarroako Foru Ogasunak argitaratutako informazio-oharretan ohikoa den bezala, araua arretaz irakurtzea gomendatzen da, arau-testuaren irismena eta edukia behar bezala ulertzeko.

Irango gatazkaren ondorioz bizi dugun egoera geopolitikoak aurreikusi gabeko ezegonkortasun fase batean sartu ditu energiaren eta lehengaien nazioarteko merkatuak, eta ondorioz aldatu egin dira enpresen inbertsio-planak eta familien kontsumo-erabakiak. Egoera horren aurrean, Foru Administrazioak neurri fiskal aringarriak hartu ditu, segurtasun juridikoa areagotzeko, zerga-karga arintzeko eta trantsizio energetikoa sustatzeko, gure ekonomiak kanpoko faktoreekiko duen zaurgarritasuna murriztearren.

Neurri horiek ezarri dira 2026ko apirilaren 20(e)ko NAOn argitaratutako **1/2026 Foru Lege Dekretua**ren bidez. Jarraian haren alderdi garrantzitsuenak laburbilduko ditugu.

ZENBAIT EPE LUZATZEN DIRA

- **Ohiz kanpoko etekinak berrinbertitzeagatik egiten den salbuespenari heltzeko epea luzatzen da**.

  Ondare-elementuen kostu bidezko eskualdaketa batean lortutako dirua berrinbertitzeko epea, zeina ezarria baitago Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen 37.1. artikuluan, ***urtebete luzatzen da***, baina, bakar-bakarrik, berrinbertitzeko epea 2026. urtean bukatzen zaien zergadunentzat.

- **Inbertsioetarako erreserba berezia gauzatzeko epea luzatzen da.**

  Inbertsioetarako erreserba berezia gauzatzeko epea, zeina arautua baitago 26/2016 Foru Legearen 45.2 artikuluaren lehenengo paragrafoan, ***2027ko abenduaren 31ra arte luzatzen da***, baina, bakar-bakarrik, gauzatze-epea 2026ko urtarrilaren 1etik 2027ko abenduaren 31ra bitarte bukatzen zaien zergadunentzat.

PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGA.
Etxebizitzen energia-efizientzia hobetzeko obrengatiko kenkaria
(4/2008 LFDaren 65. xedapen gehigarria)

Etxebizitzetan energia primario ez-berriztagarriaren kontsumoa edo etxebizitzak berotzeko edo hozteko energia-eskaria murrizteko obrak gauzatzeko epe luzeagoa izateko, **etxebizitzen energia-efizientzia hobetzeko obren kenkaria** *aplikatzeko denbora-tartea handitzen da 2026. urterako (eta modalitateetako batean 2027rako)*.

- *Kenkariaren lehen modalitatea* (4/2008 LFDaren 65. xedapen gehigarria, 1. apartatua).

  Berokuntza- eta hozkuntza-eskaria murrizteko asmoz 2026an eginiko obrengatik epe horretan ordaindu dituzten kopuruei kenkaria aplikatzeko epea luzatzen da.
  Alokairurako izanen diren etxebizitzen kasuan, 2027ko abenduaren 31 baino lehen alokatu behar dira, eta betiere etxebizitza gisa erabiltzeko.

  Oharra: 2025ean ordaindutako kopuruek ez dute kenkaria aplikatzeko eskubiderik sortzen.

- *Kenkariaren bigarren modalitatea* (4/2008 LFDaren 65. xedapen gehigarria, 2. apartatua).

  Energia primario ez-berriztagarriaren kontsumoa hobetzeko asmoz 2026an eginiko obrengatik epe horretan ordaindu dituzten kopuruei kenkaria aplikatzeko epea luzatzen da.
  Alokairurako izanen diren etxebizitzen kasuan, 2027ko abenduaren 31 baino lehen alokatu behar dira, eta betiere etxebizitza gisa erabiltzeko.

  Oharra: 2025ean ordaindutako kopuruek ez dute kenkaria aplikatzeko eskubiderik sortzen.

- *Kenkariaren hirugarren modalitatea* (4/2008 LFDaren 65. xedapen gehigarria, 3. apartatua).

  Nagusiki etxebizitza-erabilerakoak diren eraikinen birgaitze energetikorako 2026an eta 2027an eginiko obrengatik epe horretan ordaindu dituzten kopuruei kenkaria aplikatzeko epea luzatzen da.

  Oharra: modalitate honek aukera ematen du kenkaria aplikatzeko 2025ean ordaindutako kopuruei.

ONDARE-ESKUALDAKETEN ETA EGINTZA JURIDIKO DOKUMENTATUEN GAINEKO ZERGA

Energia-aurrezpenaren ziurtagiriak salbuestea kostu bidezko ondare-eskualdaketetan.

Kostu bidezko ondare-eskualdaketen modalitatean, energia-aurrezkien eskualdaketek transakzio-kostuak eragiten dituzte. Bada, efizientzia lehentasun estrategikoa den une honetan, kostu horiek ez dezaten kaltetu energia-aurrezpenaren ziurtagirien erabilera, **salbuespen bat ezarri da kostu bidezko ondare-eskualdaketen modalitatean**, 36/2023 Errege Dekretuan araututako **energia-aurrezpenaren ziurtagirien sistemaren esparruko eskualdaketa horietako**. Horretarako, salbuespen hori jasotzen duen 37 zenbakia gehitu zaio 129/1999 LFDaren 35.I-B artikuluari.

Indarra hartzea

Aurreko neurriek indarra hartu dute arau hori Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean, eta bertan ezarritako ondorioak izanen dituzte.